

Nafar karia

• ostirala • 2000ko urtarrilaren 28a

Egunkaria

Gehigarri honetan

Altsasu • Kintoen inguruko argazki erakusketa inauguratuko dute bihar
Juan Azpiroz • «Euskal selekzioen artean aitzindari izan gara»

CONCERTI

Musica basca alla Pesa

Domani sera (ore 22,30) a Vetralla il complesso degli Skalariak

Arrivano da Pamplona domani sera (ore 22,30) a "La Pesa" di Vetralla gli "Skalariak", che presenteranno il loro secondo album con un'eccezionale formazione composta da ben otto elementi.

Il locale famoso per la sua particolare attenzione nel proporre generi musicali di grande fascino ma soprattutto per i suoi ospiti internazionali apre, dunque, un nuovo paragrafo della sua personalissima storia musicale.

La Ska-band formatasi in Spagna nel 1994 si è imposta facilmente sia sul mercato discografico sia all'attenzione di critica e pubblico.



Il complesso degli Skalariak



• ASIER AZPILIKUETA

QUASI UN SOLO RITMO S'ODE IN CITTA': SKA

Dai Bluebeaters ai baschi Skalariak ai Franziska. Atri suoni con Fleshtones, Ginevra Di Marco, Mambassa

SKA. Ecco la parola chiave per la settimana live di Torino e provincia. Insieme a **Bluebeaters** (il gruppo svedese di **Palme & The Bluebeaters**), **Fleshtones** (il complesso newyorkese di **Gianni Di Marco**), **Gianni Di Marco**, **Arco** e **Franziska**. Lunedì 29, il concerto si svolgerà alle 22,30 al Circolo di Somana. Il prezzo è di 15.000 lire ed è valido fino al 23. Delle vendite consecutive della scorsa settimana.

LIVE. Appuntamento con gli Skalariak questa sera all'osteria La Tasca di Olginate

La musica ska arriva dai Pirenei

Billy Trio alla Clavicola di Ballabio, SkaStory al Circolo di Somana

Giulio Sesano

Arriva addirittura dai Paesi Baschi la band che si esibisce questa sera alla trattoria osteria La Tasca di Olginate. Gli Skalariak (nella foto), nati a Pamplona alla fine del '94 grazie ai fratelli Juanito (batteria) e Peio (chitarra), Skalar, ai quali si sono aggiunti poi Javier Etxebarria (chitarra), Luisillo Kalamankala (basso), Martin Memola (basso), Harri Laitza (batteria), Ernesto (tromba) e Kike (trombone), cominciano ad essere conosciuti nella primavera del '96, quando la più impegnativa casa discografica sia a livello mondiale, la **Maver** (con **Records** di **New York**), produce una compilation internazionale (**Latin Ska Vol. II**) che include la prima registrazione della band. Dopo la partecipazione ad un'altra compilation



l'attore **Aurtenago Gorakha** (**RAM Novanda**, '97). Tornato in scena con il suo omologo **CD** sempre nel '97 e sempre per la **RAM**. Presenti su **Tierra de Rock/Rock** L'etichetta compilation sulla scia del rock in terra di Navarra, realizzano poi **Solo Vivir** (CD

singolo) e partecipano alla compilation **Skanking** della **Scena Avey** (per la tedesca **Mail Music Records**), confermando in tal modo il sempre maggiore successo anche fuori dai patri confini.

Standard jazz ed improvvisazione sono invece di casa al complesso **La Clavicola** di **Ballabio** sulle note del **Billy Trio**, mentre il variegato genere ska è ancora protagonista al **Circolo** di **Somana** (**Mandelu del Lario**) sulle note della band degli **SkaStory**.

Iruñeko ska

Italian

Skalariak Iruñeko ska taldeak zortzi kontzertu eman zituen abenduan Italian. Eta hirugarren aldia zen hara joaten zirela. Hortaz, Tonino Carotone ez da Italian arrakasta erdietsi duen musikari nafar bakarra. Modu apalean bada ere, eurena bira arrakastatsua izan zela erran daiteke. Skalariak nazioartekotu egin zaizkigu. Rock izarren antza dute, baina antza besterik ez, harat-honat eraman zituen bigarren eskuko furgonetak ez baitu gehiagorako ematen.

Basaburua • Ametza ez da ametsa

Bazkaria, antzerkia eta Kubako musika Ametza kultur elkarteko festan

**Bihar bilduko dira, Berueteko ostatuan, Pulunpe aldizkariko eta Esan-erran irrati langile eta kolaboratzaileak eta nahi duten guztiak irratiaren lehenengo urtebetetzea ospatzeko. Pulunpe-
k bere 26. alea atera berri du.**



Esan-Erran irrati Ametza elkartearen lanari esker abiarazi zuten, duela urtebete. ● JOXE LACALLE

URTEBETE PASATU DA ESAN-erran irrati bere uhinak hedatzen hasi zenetik. Amets hura gauzatzearen arduraduna Ametza kultur elkartearen izan da, proiektua aurrera ateratzeko asmoz sortu zen elkartearen. Ametzak bere helburua lortu zuen. Arantxa Puignau elkarteko kideak honela azaldu du: "Oso prozesu luzea eta neketsua izan da, baina hasieratik ikusten nuen ametsa errealitate bilakatu behar genuela". Irratiaren proiektua egin ondoren, inguruko udal guztietan aurkeztu zuten. Ultzamako Udalak lagundu ez zuen arren, aurrera jo zuten, beste udalen laguntzaren bila. Bertze gauza batzuen artean, bazkide kanpaina egin zuten, eta dagoneko 175 bazkide inguru dituzte. "Ni oso kontent nago irratiaren emaitzarekin, gauza batzuetan

espero nuen baino hobeki aterada, eta jendea, langileak eta abar asko inplikatu dira proiektuan", erran du Puignauk. Dena dela, ez du aipatu gabe utzi nahi irrati libre baten ukitua izatea nahiko lukeela, hau da, jende gehiago inplikatzeko irratia egiteko nahi dutenari buruz. Egun, astean goizeko hamaiketatik ordu bata arte emititzen dute FMko 107.9an. Larunbatetan, 12:00etatik 14:00etara, eta astelehenetan, gaueko 21:30etan, irratsaio bat egiten dute bertako lagun batzuek.

Pulunpe aldizkariari dagokionez, zortzi urteko bizitza duela

erran beharra dago. Urte horietan guztietan gorabehera asko izan ditu, kolaboratzaile batzuk joan, bertze batzuk etorri, baina Puignauaren arabera, "beti egon da norbait aurrera jarraitu duena". Hala ere, jende berriaren inplikazioaren falta sumatzen dute proiektu honetan ere. Egun, aldizkaria hiruhilabetekaria da, eta orain dela egun batzuk 26. alea atera zuten.

Biharko festan, Ametza kultur elkarteak bi proiektu horiek gauzatzeko lagundu duen jende guztiak elkartzeko asmoa du. Festan ez da deus faltako. Hasteko, bazkaria izanen da Berueteko

ostatuan, ordu bietan. Tripa bete ondoren, irri egiteko parada izanen da Leitzako Sagu eta Sator antzerki taldearekin. *Ikusten zaitudanean* umorezko antzezlanaren taularatuko dute leitzarrek. Akitzeko, dantzarako tartea helduko da. Carlos Piñuela y su Son Iruñeko musika taldea arduratuko da horretaz. Nafarrak izan arren, Kubako soinuak jotzen dituzte zazpi lagun horiek. Beraz, *El son de la loma*, *Hasta siempre* eta *Emiliana* entzun ahalko dira Berueteko ostatuan, euskaltzaleen gozamenerako.

→ Txari Eleta

Iruñea

Tori hirugarrena!

GAUR ABIATUKO DA ZINEMA Euskaraz Iruñean ekimena, Karkiri Iruñeko Euskaldunon Elkarteak antolatua (aurten hirugarren aldiz). Ekimen hau da iruindar helduek euskarazko filmak pantaila handian ikusteko duten aukera bakarra. Arratsaldeko zortzietan, Golem zinematokietan, *Mifune* Danimarkako filma eta Koldo Almandoz euskaldunaren *Adar bakar* film laburra emango dituzte. *Mifune* filmaren jatorrizko bertsoa botako dute azpituak.

Martxoaren bukaera arte, ostiraletan, ordu berean eta leku berean, film eta filme labur bat ikusteko parada izanen da 500 pezetaren truke. Nahi duenak bost emanalditarako bonua eros dezake 1.800 pezetan.

Euskal Herrian egiten den euskarazko zinemaldirik garrantzitsuena dugu honakoa, eta hiru helburu ditu: Iruñean euskaraz bizi nahi dutenei esparru berri bat zabaltzea; erdarazko filmak ikusten diren gisara, euskarazkoak ere ikusteko aukera izatea; eta euskarazko filmak egiten dituztenak saritzea, "beren ausardia eta lanarengatik".

Emanaldiak hauek izanen dira:

Mifune eta *Adar bakar* (urtarrilak 28 eta otsailak 4); *Anonimoa* eta *Gernika* (otsailak 11 eta 18); *Bizien arbola* eta *Gizon gaizto baten kondaira* (otsailak 25 eta martxoak 3); *Angus* eta *40 ezetz* (martxoak 10 eta 17); *Ione, igo zerura* eta *Harragia* (martxoak 24 eta 31).

→ Asier Azpilikueta

Seaskak 31 eskutik?

irulegitik

JOJO BIDART



31 ukaitea da joko hoberena muslarientzat. Euskaraz erakasten duten Iparraldeko ikastolen Federazioak 31 urte betetzen ditu eta ez da adin txarra.

Urte horietan guztietan egin den bideari so eginez bada zer aipa eta zer ospa: zenbait ixilkako lan, bilkura, izerdi, kexadura, borroka, bai eta ere plazer, irri eta beste. Oraiko burrasoek ahantzi edo sekulan jakin ez badute ere aintzinekoek egin lana orroitarazia izan zauku aste hauetan: inguruko mesfidantza edo trufaren gainetik bospasei hurrekin lehen ama ikastola nola ideki zen BABko etxe batean eta euskararen erakaskuntzarako balioa frogaturik zoin laster sortu ziren beste frango.

Ondoko urteetan, beste pario handia egin zuten ama ikastolaren ondoko eskola altxatuz. Horietatik Iparraldeko eskualde guztietar hedatu eta Seaskako sarea eta gaur egun 1.800 haur euskaraz eskolatuak dira ama ikastolatik baxileraino.

Ainitz da eta guti da!

Burraso eta laguntzaile buru bero batzuen nahikeria eta indar handiz osoki egin izan dela ikusiz ainitz da. Baina egin behar diren aintzinean, belaualdien arteko transmisioaren hausdurak ekartzen duen euskararen galtzea erreperatze lasterkaldian beranta handia dugu oraino eta denbora ez da gure alde.

1.800 haur, 19 ama ikastola, 3 kolegio eta lizeo bat.

31 urteko esperientzia eskuetan, beste pario baten aintzinean dago Seaska: Frantziako Hezkunde Nazionalean osoki sartu eta zer baldintzetan?

Integrazio edo inserzio horren aldeko iritzia: eskola publiko izateak ekarriko duen ezagutza ofiziala, Frantziako administrazioan eta Iparraldeko gizarteko sektore zornabaitetan eskas dena oraino, eta hainbat ikastolen egoera ekonomikoa hobetu lezakeen diru iturri publikoa.

Perspektiba horrek dituen kezka eta arragarak: ikastolen berezitasuna eta orai artinoko lan guztiaren fruitua eskuetatik galtzea. Zer bilakatuko ote da hizkuntza murgiltze sistemaren erabilpena?

Ikastolen garapena? Eskola karta? Erakasleen izendapena eta formazioa? Ikastolen kudeantza zaintzen duten burrasoen elkarteak eta ikastolen arteko elkartasun sarea?

Bestalde, ez bada oraino sobera sakondua izan ere, Iparraldeko burraso eta erakaste zornabait hasi dira Euskal Herri guziko ikastolen Plan Integrala izeneko proiektu emankomun bat aztertzen; dauden egoera administrazio politiko ezberdintasun guzietan gainetik erabilgarri ditzaketen tresnak edo egiturak xutik ezartzeko xedearekin.

Hautu garrantzitsuak egiteko unean beraz Seaska. Karta ederrak baditu eskuetan baina abiatu den jokoan zer irabaz eta zer gal dezaken argi neurtu beharko du parioak egin baino lehen.

Altsasu . Kintoak erakusgai

Santa Agedako kintoen argazki zaharren erakusketa zabalduko dute bihar

'Santa Agedak mendea bete du Altsasun' izenburuko erakusketa irekiko dute bihar, arratsaldeko zortzietan. Erakusketak Altsasuk mende batean izan duen bilakaera erakutsi nahi du nolabait.

1975 EKO KINTOEK, EUREN 25. urteurrena dela eta, antolatutuen erakusketa Altsasuko kintoen 70 bat argazki zaharrek osatzen dute. "Hamarkaden arbera antolatuturiko ibilaldi bat da, zeinetan, zenbait objektu etnografikoren laguntzaz, Altsasuk mende batean izan duen bilakaera ikusten ahal baita", adierazi du 1975eko kinto eta erakusketako antolatzaile Satur Leozek. "Erakusketa oso ona da; adibidez, ikusteko zer-nolako bilakaera izan duen Santa Agedako kintoen janzkerak. Orain uniforme da kasik. Baina egungo jantzieta- ra heldu arte saio ugari egin dituzte. Gerra aurreko argazki batean kinto guzietan kriskitinak daramatzate, eta beste batean, gorbatak".

Gure Etxea elkartearen ikus dai-



1947ko Altsasuko bi kinto, parrandarako prest.

teke erakusketa, 20:00etatik 21:30etara, otsailaren 13 arte. Dena dela, Leozek dioenez, erakusketak harrera ona izaten badu, eta hala gertatzea espero du, egun gehiagorako izanen dute. Erakusketako argazkiak jatorrizkoen kopia handituak

dira. Altsasuko Udalak bere gain hartu du markoen gastua, Leozek nabarmendu duenez.

Ongi sustraituriko ohitura

Leozek adierazi duenez, Santa Agedako jaiak hagitz sustraituriko

dago altsasuaren ohituretan. Urtarrilaren 6an alkateak kartekin egiten duen zozketa baten bidez lehen eta bigarren erregea aukeratzeko dituzte. Lehena, beste gauza batzuen artean, jaiaren kontabilitateaz arduratuko da, eta bigarrenak lagundu egingo dio. Santa Ageda eguna ailegatu arte kintoek Altsasuko zortziko dantzatan ikasi behar dute, hamar bat minutuko ingurutxo. Santa Agedako jaiak irausten duten bitartean, kintoek banan-banan zortziko dantzatu beharko dute herriko plazan, lehen intxaurrondo zahar bat zegoen tokian. Otsailaren 5ean, Santa Ageda egun handian, kintoek diru bilketa egiten dute herritarren artean eta patrikaratzen dutenarekin lauzpabost egunetako parranda ordain dezakete. Lehen erregeak asto zakutodun baten laguntzaz bilduko du diru hori, eta bigarren erregeak neska kintoek ematen dituzten opil handiak bilduko ditu. Opil horiek herritarrei salduko dizkiete eta, horrela, diru gehiago eskuratuko. Parranda izanen da nagusi egun horietan Altsasun. "Erakusketak merezi du, altsasuaren guraso edo aitonak ikus daitezkeelako parrandan", komentatu du Leozek. "Irudi xelebreenak aukeratzeko saiatu gara".

→ Asier Azpilikueta



herri aldizkariak

Edurne Elizondo

'Yoyes', Helena Tabernarena

Sakanako **Guaixe** hilabetekariak eskualde horretako zinemagile Helena Tabernari egin dio elkarrizketa azken zenbakian. *Yoyes* bere aurreneko film luzeari buruz — bukatu berri du —. Ondokoak dira Tabernak bere lanaren inguruan **Guaixen** esandakoak: "Esperientzia zoragarria izan da pelikula egitea. Euskal Herriko bi aldeetan, Parisen eta Madrilren filmatu dugu, koprodukzio frantziar-espainiar-italiarra da. Hasiera-hasieratik gogor borrokatu behar izan dut proiektu hau aurrera atera ahal izateko. Konplexutasun handiko lana suertatu da. Batzuetan ia-ia abentura ki-

xoteskoa... Baina zailtasunak zailtasun eta oztopoak oztopo zoragarria izan da filma lantzea".

"Gidoia Andres Martorellekin batera osatu dut. Garai hartako prentsa agiriak, *Yoyes* ezagutu zuen jendeari egindako elkarrizketak, *Yoyesen* egunkaria... Gai hauek hartu ditugu oinarritako, ondoren nire bihotzaren eta bizipenen bahetik pasara eta azkenean idatzi. Hauxe izan da prozesua. *Yoyesen* garaiari dagozkion giro eta aferak islatu ditugu: 70 eta 80ko hamarkadetakozko zarata politikoa, ETaren jarraua, GALen agerpena, Espainiako Bar-

ne Ministerioaren bergizarteratze politikoa... Hau guztia azaltzen da filmean. Funtsa, ordea, ez da hori, *Yoyesen* eboluzioa baizik eta emakume gisa bizi izan zuen esperientzia".

"ETAko buruzagi izatera iritsi zen. Gero etengabeko eboluzio prozesuan sartu zen. Nik eboluzionatzeko eskubidea aldarrikatu nahi dut film honen bidez. Banekien gai delikatua nuela esku artean eta garbi utzi nuen askatasun osoa izango nuela eta honela izan da: egin dudana filma egin nahi izan dudana da. Manipulaziorik ez da izan, ez ideologikorik, ez bestelakorik ere".



urdairen mintzoa

Xabier Larraburu

Entibadora

Eta gaur goizean, goizeko zortzietan puntu puntu, sei pisu beherago dagoen dinosaurioaren urratsak entzun ditugu: danba!, danba!, danba! Eta danbeteke bakoitzaren ondotik gure etxeko paperezko paretak, eta kristalak ere, kotoklonka erantzuten hasi dira: danba! (kalean), kotoklon! (gure etxean), danba! (hor azpian), kotoklon! (hemen, seigarren pisuan). Eta neska-laguna eta biok ohean elkarrigiratu eta batera ahoskatu dugu: Jurassic Park! Bai horixe: Jurassic Park. Ez gara jende ilustratua. Amerikanizatuak gaudela ezin ukatu. Ez dugu, esate baterako, "Basajauna!" jator eta etniko bat bota, edo "Verderkander!" entziklopediko bat (Schober psikopedagogoa bere maiteñoari idazten zizkion eskutitz hermeneutikoetan azpikontzientziari buruz ari zela erabilitako submetafora ergobiologilizatua). Kebe. Ez. "Jurassic Park!" esan dugu. Eta hortik atera kontuak zenbaiteraino "AmericanOnlineTimeWarner-Microsoftizatuak" gauden dagoeneko. Zeren, seguru nago, beste batzuei, Alde Zaharreko Entibadora erraldoi honen danbetekeak entzundakoan, Wagnerren ezkilak ekarriko dizkie gogora edo Napoleon Bonaparteren kanoikadak Mosku erasotzerakoan, eta ongi iruditzen zaigu zeren Entibadoraren Interaktibitatea horretan datza, bakoitzari bere jakinduriaren araberako eskaintzen diola, baina gu pelikula ziztrinenez oroitzen gara. Exkabadorak Entibadoratik tiraka eta bultzaka ibiltzen direnean Titanic filma dakarkigu gogora eta orduan Titanic ondoratu zeneke azken momentuak bizi ditza-kegu: krixññññññññdoongggg! Burdina eta altzairu tonak beharrik. Dooong-kriñññññññdoong! Fisikaren Indar, Presio eta Lanaren konzeptuak bete-betea aplikatuak. Krosteeeng! Nññññññññdooong! Luzargia. Titanic ontziko lau tximiniak ur ilunean desagertzen. Eta lanen ondorioz kalea kale bezala desagertzen denean, lurra, euri putzuak eta atarietara jarritako oholak berterik ez denean, Far West-eko filmenez oroitzen gara, hiriak natura erdian jarritako etxe biluziak berterik ez ziren garai haieztaz. Enfin, pozik gabiltzala gure Entibadora Multimedia maitearekin. Bazela garai iruñean tamaina honetako zer edo zer Kulturala egiteko. Asmatu dutela. Bete-betea.

Skalariak, «liggeramente frezzant»



Iruñeko ska taldeak zortzi kontzertu eman zituen abenduan Italian

Tonino Carotone ez da Italian arrakasta erdietsi duen musikari nafar bakarra. Skalariak Iruñeko taldeak zortzi kontzertuko bira egin zuen abenduan Italian, eta, modu apalean bada ere, euren bira arrakastatsua izan zela erran daiteke. Skalariak nazioartekotu egin zaizkigu. Rock izarren antza dute, baina antza besterik ez, harat-honat eraman zituen bigarren eskuko furgonetak ez baitu gehiagorako ematen.

ZORTZI KONTZERTU. ZORTZI HIRI. BEDERATZI EGUN. abenduaren 3tik 9ra. Denetara, 5.500 kilometro. Ez ziren Volkswagen kakalardo gorrian joan. "Duela bi urte erosi genuen furgoneta batean sartu ginen bederatzi pertsona, musika tresnak eta ekipajea", erran du Hiart Leitzak, taldeko teklatu joleak. "Hanka mugitzeko malabareak egin behar ziren. Nahiko bidaia astuna izan zen". Abenduaren 2an ateratu ziren, ostegunarekin. Gaua Katalunian pasa eta ostiralean Turinera heldu ziren.

Skalariak taldea gora eta behera ibili zen Italian. Lehenengo egunean Turinen jo zuten eta hurrengoan Erroman, hau da, 8 ordura. Gero berriz gora egin behar izan zuten. Eta gero behera. "Bide beretik pasa gara hiru aldiz", kontatu du Hiartek. "Zortzi musikari eta teknikari bat joan ginen. Ezin genuen inor gehiago eraman". Hiartek argi ikusi du batzuetan abantaila dela taldean jende gutiago izatea. "Hanka luzatu nahi duzue hanka luzatzea oso inportantea da momentu jakin batean. Furgonetan iristen zen momentu bat ipurdia ere sentitzen ez nuena". Bueltako bidaia anitzez ere astunagoa izan zen, 21 ordu izan baitziren furgonetan.

Italian hirugarrenez

Hiru toki motatan jo zuen Skalariak taldeak: etxe okupatuak (*Centro Sociale Okupato Autogestito*), tabernetan eta kontzertu aretoetan. "Etxe okupatuak nahiko diferenteak dira han", dio Hiartek. "Beste funtzionamendu bat dute. Askoz handiagoak dira eta mugimendu handiagoa ikusten da bertan". Erromako Villaggio Globalen, adibidez, bazuten erakusketareto bat, beste bat or-

Zortzi kontzertu eman zituzten Italiako zortzi hiritan, bederatzi egunetan. Denetara, 5.500 kilometro. Leku batetik bestera bigarren eskuko furgoneta batean joan ziren. Han barnean sartu ziren taldeko bederatziok, musika tresnekin eta ekipajearekin batera

denagailuekin, ongi hornituriko bulegoa, jatetxea eta "zentroari bizia ematen zion giro multirraziala". Han abenduaren 4an, larunbatean, eman zuten kontzertuan 1.500 bat lagun bildu ziren.

Rock izar ospetsuak bailira bezala, Skalariak-ekoek bi eskakizun zituzten lo egiteko tokiei dagokienez: lekua garbia egotea eta hotzik ez egitea. Hala bada, hotel, aterpetxe eta ostatuetan egin zuten lo. "Egun batean izan ezik", dio Hiartek. "Hala-ko etxe abandonatu batera eraman eta denak gela batean sartu gintuzten".

Italian hiru aldiz izan dira Skalariak. Iragan abenduan egin zuten biraren antzekoa egin zuten 1998ko Aste Santuan. Beraz, ezaguna zuten lekua. Gridalo Forte disketez erromatarra arduratu zen Skalariak-en biraren antolaketaz.

Izarren ospea dastatuz

Hiartek dioenez, kontzertuak oso ongi ateratu ziren. "Jendea oso ongi portatu zen. Nabaritu zen ez zela lehenengo aldian joaten ginea. Jendeak, guti gorabehera, ezagutzen gintuen. Giro berezi bateko jendea joaten zen gure kontzertuetara. Giro alternatiboko jendea, esan dezagun".

Astelehen batean kontzertua ematea zer den jakin zuten Skalariak. Bolognan izan zen eta 250 bat lagun bildu ziren iruindarrangana. Baina, Hiartek dioenez, ostiral eta larunbatekoak izan ziren kontzertu hoberenak.

Skalarien ikuskizunaz gozatzera joaten zirenen artean bazegoen *skin* anitz. "Beste mota batzuetako jendea bazegoen, baina ska musika motaren jarraitzaile sutsuenak *skin*-ak dira. Hango *skin*-ak exajeratuagoak dira. Oso prototipikoak dira, eta oso itxura oldarkorra dute". Abenduaren 7an, as-

teartearrekin, Cantiere 21 mod klubean jo zuten. 70eko urteetan Londresen sortu zen ska eskola bat da *mod* izenekoak. Antza, ez zuten hangoekin askorik konektatu. Izan ere, *mod* musika dantzatu nahi zuten. Dantzatzeko orduan hobeki irristatzeko, zerrautsa eta talko hautsa botatzen zuten lurrean.

Eta nazioarteko talde "famatua" izatea zer den jakin zuten. Erroman zale batek berak eginiko taldearen logotipoko eranskailu distiratzaila oparitu zien furgonetan paratzeko. Milan ondoko Olginate herrian asteazken eta ostegunetan izan ziren. "oso jende jatorraren artean". Hango kontzertua bukatu eta gero, jende andana hurbildu zitzaizten diskoak, elastikoak, kartelak eta eranskailuak eskatzera. Diskoak sinatu, eskuak estutu eta hagituz gurtura hartu zituzten bota zizkieten loreak.

Italian bederatzi egun izan ziren, baina turismo egiteko denborarik ez zuten izan. Honelakoak izaten zuten eguna: kontzertuko tokira heldu, soinu proba egin, afaldu, jo, gaueko lauetan edo bostetan bukatu, lotara joan eta goizeko hamaiketan ateratu hurrengo hirira. Erroman izan zuten turismo egiteko aukera bakarra. Hiruk baliatu zuten aukera hori, eta euren ibiltzeko gauzarik nabarmena da Enrique y Ana bikote mitikoko Enrique

Italiako bira



J. APEZTEGIA

del Pozo topatu zutela. Hiart hotelean gelditu zen atsedean hartzen. "Izugarrizko nekea nuen. Nik ez dut inoiz horrela-ko nekerik sentitu. Ager-tokian leher eginda zaudete. Jendeak bakarrik kontzertuko ordu eta erdia ikusten du, eta ez daki atzetik zenbat kilometro dituzun eta nolako lo eza". Turismo egiteko aukera izan ez zuten modu berean, antza, argazkiak ateratzeko modurik ez zuten izan. Lau edo bostek argazki makina eraman zuten arren, bakarrik hiru argazki dituzte erakusteko modukoak. Argi dago musika jotzera joan zirela.

Itzultzeko asmotan

Skalariak Italiako biraren oso balorazio ona egin du. "Beti oso positiboa da ateratzea, jendeak ezagut zaitzan mugak zabalduz joatea. Baina beste bira baterako proposatu dut hegazkinz joatea", dio Hiartek umoretsu. "Jende asko gara, instrumentu asko. Oso neketsua da horrelako bira bat furgonetan egitea". Hala ere, udan beste bira bat egiteko asmoa dute. "Baina joaten baldin bagara, egun gutirako izan dadila", desiratu du Hiartek.

Badira kontu txarrak ere. Hiartek beldur handia pasa zuen furgonetan. "Italiarrek oso gazki gidatzen dute. Gaueko hamaiketan semaforoak kei-

Mugak zabaltzen

Skalariak taldekoak orain oportetan dira, erabat deskonektatutik. Otsailaren 19an hasiko dira berriz, Madrilen eman duten kontzertu batekin. Eta hurrengo asteburuan Okzitaniako Tolosara joanen dira. Katalunian kontzertu anitz eskainiko dute. Eta Euskal Herrian ere bai, nola ez. "Baina gustatuko litzaizuke gehiago ateratzea kanpo alde-ra", dio Hiart Leitzak.

Apirilean Mexikora joaten saiatuko dira, eta gero Europako erdialdera joan nahi dute: Suitza, Alemania eta Frantziara.


Bitartean, film baten estreinaldiaren zain daude, Alfonso Arandia bizkaitarrak Skalariak-en *Klub Ska* diskoko bi kanta sartu baititu *Carretera y marita* filmean.

Oraingoz ez dute disko berririk egingen. *Klub Ska* iragan maiztan ateratu zuten. "Nahi dugu single bat grabatu udarako, jendeari hor gaudela esateko", esan du Hiartek. "Eta beharbada bilduma internazionala aterako dugu. Eta hurrengo diskoak aurtengo Durangoko Azokarako edo 2001eko udarako aterako dugu". Baina hori guziaz geroko utzi nahi dute. Orain kontzertuekin ari dira jo eta ke. Makina bat kontzertu eman dituzte astebururo martxoaren 13tik abenduaren 11 arte. "Bukatzeke gogoia genuen", dio Hiartek. "Eta orain berriz ere hasteko irrikan gaude".



Nazioarteko talde «famatua» izatea zer den jakin zuten Skalariak. Erroman, zale batek berak eginiko taldearen logotipoko eranskailu distiratzaila oparitu zien furgonetan paratzeko. Olginate herrian, kontzertua bukatu eta gero jende andana hurbildu zitzaizten

Asier Azpilikueta



Furgonetan bederatzi pertsona estu-estu joan beharrek erakutsi die batzuetan ez dela abantaila taldean horrenbeste jende izatea. SKALARIK

Joxemiel Bidador

Baztango euskal idazleen berri laburra (II)

Pasa den astean hasmenta eman genion Baztango zenbait euskal idazleren zerrenda honen burutzeari Nikolas Etxeberria Iturrালের ekarpena aipatuz; gaurkoan, berriz, jarraipena ematen diogu langintza berari Elizondoko eta Arizkungo beste egile pare baten lanak begiztanduz.



Anastasio Etxeberri Santxolur (1822-1907, Elizondo) Elizondon 1822.eko apirilaren 17an jaio izanagatik ere, guraso aetzak zituen Etxeberri honek; aita Garaioakoa zuen, Baztan alde-ira joaniko maisua, eta ama, aldiz, Orbaitzetakoa. Apeztu ondoren, Lesaka izan zuen lehenbiziko helmuga Etxeberri, hango benefizidutza bat 1856.ean erdietsita, bertan ziharduten zazpi apezten gazteena geneukalarik. Labur joan zitzaion Bortziritan, ordea, eta 1858.erako Zugarramurdiko erre-tore zegoen, 1907.ean hantxe bertan hil bitarteko berrogeita hamar urte luzetan bete zuen lana, 1876-1877 bitartean Olatzagutian non-bait zigortuta eman zuen epe laburra izan ezik. Etxeberri hil oste-an, euskal idazlea ere izan zen Blas Aierri Indak hartu zuen Zugarramurdiko elizaren lema, gero-ago Arakil-Hiriberriko apezta eta *Euskal guratsoen argiya* eliz liburuaren egilea izanzen zena. Jose Maria Satrustegi izan da egile hau deskubritu ziguna, bai bere *Euskal testu zaharrak* liburu klasiko-an, bai bere *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian 1986, 1987 eta 1997 urteetan agertaraziko artikulu segidan. Etxeberriren zenbait izkribu Orreagan eman zituzten Nikolas Polit auriztarraren paperekin batera jaso zituen Satrustegik, alabaina Zugarramurdiko eliz artxiboan Etxeberri ondu prediku bilduma ederra ba omen dago oraindik. Argitaraturiko testuen artean, eta sermoien gaia dela eta, Zugarramurdin 1875.ean predikaturiko dantzen inguruko sermoia izan daiteke aipagarrienetakoa: "Cerranaren dugu, orraico berce yosteta eta zubez deitzen ttuzuben liberticione, demoniyuac ez baccaric erri andiyetan baicic orain ttipietan introducittu edo sartu ttuben orietaz? Badaquizube ceñetaz naicen mintzo. Orraco diversio lottsantuba galduerazten ttuzten orietaz. Orraco yostetaz ceñetan du doncellitac icasten obiago izanen lizaquiyena iracasten ezpalu; icasten baitu, aunitzitan, honra,

estimaciya eta castidadia galzeco gaya diren gauzac".


Frantzisko Laphitz Arriada (1832-1905, Arizkun)

Baztango egilerik klasikoenarekin egiten dugu topo oraingoan, horratio ez da beharko lukeen bezain ezaguna, ausaz, sorterrria izan zuen Arizkunekin baino Iparralde-arekin askozaz ere lotuagoa egon delako. Arizkunen jaiotzearena, baina, ez zen izan txiripa hutsezko kontua, izan ere, bertakoa baitzuen bere ama Maria Josefa Arriada, bestaldetik ere, Aintzialden oraino bizirik dirauen abizena izanki. Edozein modutan ere, eta ezagunenez, Frantxua 1832.eko irailaren 30ean jaio eta gutxira, aitaren herria zen Irisarrira aldatu ziren etxeak. Gazte zela, Hazparneko eskolan ikasketa klasikoak egin ondoan, apezgaitegian sartu zen, Uztaritzeko txikian lehenbizi eta Baionako nagusian gero, 1857.erako, behin apez egirik, Baigorriko erretoare laguntzaile hasteko. Baigorritik Zuberoako Altzaira egin zuen 1866.ean, alabaina, bertan urtebetea doi-doi emanda, San Mixel Garikoitzen betharrandar sartuta, Ameriketara joan zen misiolari. Montevideo-ko El Cerro auzoan, Paraguain eta Buenos Airesen ibili ostean, Platakohirian zendu zen 1905.ean; Laphitz garrantzi handiko pertsona izan zen Hego-Amerikako historia erlijiosoan, eta izan zuen eraginak ongi aztertu gabe badirau. Edozein modutan ere, eta misiolariaren lana gutxiesten asmorik izan gabe, ez da dudarik Ameriketara joatearekin ber euskal idazle haundiagoa oraino galdu genuela garbiro, areago, itsasoz bestaldera joan aitzineko liburu bakarraren maila ikusita. Laphitzek ondu olerki bakarra ezagutzen da, 1862.eko Urruñako lore jokoetan aurkeztu *Oderik edo Aita Santuaren soldadoa*, Elizanburen lan sarizatuaren ostean lehen aipamena jaso zuena, halaz guztiz, 1867.ean Baionako Lamaignère-



ren alargunarenean inprimatu zen *Bi saindu hes-cualdun bizia*, San Inazio Lotolacoarena eta San Francisco Zabierecoarena izenburukoa da Laphitzek eskeini zigun liburu bakarra. Harrez geroz beste hirutan argitaratu da honako liburua; Iparraldeko *Otoitzlari* aldizkarian agertu zen zatika 1968-1979 urte bitartean, Hordagokoek 1978.ean atera zuten edizio faksimila, eta azkenik, Klasikoak sailari hasiera emateko, Euskal Editoreen Elkarteak atera zuten 1986.ean Josu Pikabeak atonduta. Aunitz izan dira liburu honen kalitatea nabarmendu dutenak, tartean Mitxelena edota Villasante berak direlarik, eta Mendiguren-lzagirre tandemak institutueta-ko buruturiko eskola-antologian damu agertzen zitzaizkigun horren idazle trebeak euskaraz gehiago idatzi ez izanaz. Aurreko denboretan hain erabilia izan den erlijio gaia, hagiografikoa hain zuzen ere, beste behin ere Laphitzek errepikatu zuen arren, beste estilo batekin egin zigun, kazetari edo biografo moderno baten antzera, deskribapen arinak, narrazio berritza eta elkarrizketa biziak eginez: "Frantsesek suia hasten dute biharamun goizean, argi urratzean. Bihotzdunenak abiatzen dire murrailak gora. Inazioaren ezpata han khausitzen dute murrailak baino borthitzago. Artilleriak murrailak joiten ditu arrabots ikharrak batekin. Ez da ikharatzen Inazio eta bere ezpataz jin guziak garbitzen ditu. Frantses armada-ko aitzindariak miresten dute hoinbertze kuraie eta holako gellaria zeren ez den frantsesa deit-horatzten dute. Artilleriak noizbait gazteluko murraila zilhatzen du, harri batek kolpatzen dio Inaziori ezkerreko zangoa eta bonba batek hausten dio eskuinekoa. Lorioski erortzen da bere lagun erdian".

Patziku Perurena



Epurua Ginebran

BADITUT GAUZA FRANKO Goizuetatik Leitzara etorri arte ezagutu eztakoak. Horietako bat epuru izeneko landarea. Leitzako mendietan, batez ere leku malkor eta harrizuetan, bada epurua erruz. Goizuetan baino puska ugariago. Sanjoan sutan erretzeko landare sakratu izan da epurua Leitzan, eta badirudi sineste zahar batetik zetorrela ohi-tera: "porque el humo que desprende el quemarse purifica el ambiente y aleja las epidemias". Leitzara etorri berri hartan, hura poza gurea, herri inguruko bazterretatik Sanjoan sutarako epuruketan. Neguko solstizioan gauza bera egin bherako genuke urteroko gripealdia uxatzeko.

Landare honen izena, badirudi latineko izen zientifiko beretik datorkigula: juniperus, eta euskaraz bildurik ipuru, epuru. Jakin nahiko nuke OEHK zergatik hobetsi duen atzenekoa? Badira zortzi hamar juniperus klase, baina guretzat ezagunenak eta oso antzekoak bi. Honela dio J. M. Lakoizketak biotaz:

"Juniperus communis: cast. ENEBRO COMUN, GINEBRO REAL, JUNIPERO, GROJO, ARCHENAS, ACATERA, ARCENTOS; fran. GENEVRIER, GENUVRIER COMMUN; vas. IPURKA, IPURUA, LIKABRA. En labortano INIBREA, bajo navarro ORREA, suletino IJINEBREA".

"Juniperus oxycedrus: cast. CADA, OXICEDRO, ENEBRO DE LA MIERA, ALERCE ESPAÑOL; fran. CADE, CEDRE PIGUANT; vas. IPURUA, El Dicc. De Larra-mendi en la voz MIERA, que es un aceite que se obtiene por la combustión de los tallos de esta planta, dice que en euskaro se llama LIKIPURUA, que quiere decir viscosidda que procede del enebro".

UZEiko filologo botanikan adituek, hurrenez hurren "ipar ipurua" eta "hego ipurua" izenez baitaiatu dituzte bi espeziok. Arrunt zaharra eta ugaria da gizakiak bi ipuru klaseokiko erakutsi duen

jaiera eta sinesmena. Lehen esanaz gain, ipuruaren azala eta fruituak erabili izan dira mila gaitzen sendagarri.

Azala egosita edo hezetan izerdia balliatuz erabili ohi da, eta fruitua berriz, infusioak eginez, berehalaxe hartuta igurtziz, edota gordinik janez, ahoan uzten duen mikaztasun bizia agoantuz gero; izanez ere, egunean bospasei ale hartuz gero, erremedio-arik onena baita tripako minak, haizeak, edo beste edozein dijestio problema konpontzeko.

Halere, ipuru popoiteak likore gisan hornituak hartzen dira maizenik. Esate bateko, "ipuru ardoa" izeneko diuretikoak, 60 gr. ale, 10 gr. limoi azal, eta litro bete ardo zuriz egiten da, zortzi hamar egun ontzen edukiz. Ardo zuri ordez, noski, erabili liteke uxuala (patarra), alkohol hutsa, edo txanpana baitare, ondotik likore gozoren batetik xorta bat gehituz alkohola itzalixetzeko.

Tripetatik ezongi samar gabiltzala eta, zenbat aldiz ez dugu hartu tonikerdi bat ginebra ttanta batekin, edo kopatto bete ginebra huts, zorioneko edari hori, gure bihotzeko epuru alez egina dela pentsatu ere egin gabe? Eta zenbat ginkas, gintonik, zenbat kuba edo kuberdi gordons, bakardi edo dena delako ginebrak garraxtuak? Oraintxe bertan, ihauteri astelehen gauerdian, zenbat ginebra ote dabil dantzian Leitzako tabernatan?

Eta ni hementxe, ttanttarik gabe, epururari gorazarre egiten bakar bakarrik! Baina peatuko diet mozzorro horiei. Datorren udatzearnean, antxumeloa (basakarak) ez baina epuru pinportak bilduko dituzte zakuka, eta ginebrak beteko hiru kupel, eta akabo orduan nere tripako min guziak, buruko nerbio eta ilegaltzeak, erreumak, hipotentsioak, eta emaztearen hileroko gorabeherak; guzian sendagarriu baita diotenez epurua, eta epuru alez gozatutako ginebra. Gora Epurua, gora Ginebra, munduko edaririk eta hiririk unibertsalena!

Ziria


• Motxorrosolo •

Lankidetz

ADIERAZPEN ANDANA UPNK LANKIDETZARI BURUZ ERABAKITAKOAK arbuatzen. Ohi den gisan, Aizpun zenaren alderdiak aukera oro probesten du beren mamuen txerrentzeko. Era berean, barregarria baino gehiago, kezkarria oso afera honetan elkarlana goratzen dutenen jarrera. Elkarlanarena orotan saiatu beharreko bidea baita.

Juan Azpiroz  Sanboka

«Euskal selekzioen artean aitzindari izan gara»



● KRISTINA BERIAIN

Euskal Borroka eta Sanbo Federazioko kide da Juan Azpiroz kirolari iruindarra. Hamaika urte darama sanbo egiten, eta nazioarteko lehiaketetan hainbat domina irabazi dituen arren, hamaika oztopori egin behar dio aurre oraindik txapelketa ofizialetan bere taldea, Euskal Herrikoa, ordezkatzeko.

JUDOAREN BITARTEZ EGIN DA Juan Azpiroz sanboka. Borroka kirola da sanboa, nahiko ezezaguna gure artean. Kirol horren gorabeherei buruz mintzatu da Nafarkaria Azpirozekin.

■ **Zer da sanboa?**

Borroka kirola da, eta jatorri sobietarra du. Garai batean Sobiet Batasuneko Armadak borrokarako prestatzeko egiten zituen ariketen garapena da. Japoniako kirol batzuekin antz handia du, gainera; judoarekin, batez ere. Judoaren garapena, hala ere, ezberdina izan da, eta askoz ezagunagoa da munduan. Sanboa, dena den, oso ezaguna da Sobiet Batasuneko errepublika izandako lurraldeetan: hango kirol nazionala da, eta sanbokak benetako idoloak dira.

■ **Hemen futbolariak bezala?**

Bai. 80ko hamarkadan nazioarteko federazioa sortu zen, eta, horri esker, sanboa hedatuz joan zen. Kirol hori zabaltzeko ahaleginak egin ziren, eta Moskuko Joko Olinpikoetan, adibidez, erakusketak kirola izan zen sanboa. Gaur egun, sanboko nazioarteko federazio ugari daude.

■ **Hemen, dena den, ez da oso kirol ezaguna oraindik. Horren ondorioz traba gehiago al duzue sanbo egin ahal izateko?**

Ez, hemen judo egin dugulako

lehenago orain sanboka garen guztiok. Sanboaren munduan judoaren bitartez sartu gara, lehiaketetarako entrenamendu gisa edo. Pixkanaka-pixkanaka gehiago murgilduz joan gara, sanbo txapelketa eta probetan parte hartu arte. Oraindik gutxi batzuek bakarrik egiten dute, baina gero eta gehiago zabaltzen ari da. Nire irakaslea sanboka zen, eta orain nik, judo irakasle naizen aldetik, sanboa erakusten diet nire ikasleei. Alternatiba gisa erakusten diet, jakin dezaten beste kirol hori badagoela, eta egiteko aukera dutela.

■ **Sanboa zabaltzeko lanean ari zarete, beraz.**

Bai, harrobia sortu nahi dugu, eta zabaldu. Eta zabaltzen ari dela uste dut, gero eta ezagunagoa da judo-ken artean.

■ **Lehiaketari dago-kionez, hala ere, arazo asko dituzue oraindik txapelketa ofizialetan parte hartzeko, askok ez baitute onartzen Euskal Herriko taldea. Zer gertatzen da?**

Espainiako eta Euskal Herriko federazioen artean tirabira izan da beti. Nazioarteko Federazioa sortu zenean, elkarre horren fundatzailetzat jo zuten Euskal Borroka eta Sanbo Federazioa, eta, beraz, kidetzat onartu. Espainiako, ordea, ez zegoen horren alde,

eta uko egin zion Nazioarteko Federazioan parte hartzeari. Beste hainbat herrirekin batera beste federazio bat sortu zuten, eta, denbora batez, nazioarteko bi federazio izan ziren. Azkenean, bi bat egin zuten, eta, egun, Espainiako Federazioko lehendakaria da Nazioarteko Federazioko lehendakari.

■ **Txapelketetan parte hartzeko arazoak dituzue?**

Bai, ukatu egiten digute Euskal Herriko talde gisa txapelketa ofizialetan parte hartzeko aukera. Iazko munduko txapelketan, adibidez, ezin izan genuen parte hartu. Txapelketa askotako antolatzailerekin izan ditugu arazoak, eta batzuetan ez dago argi Espainiako edo Euskal Herriko talde-tzat hartzen gaituzten. Plantoak ere egin izan ditugu, ikurrinaren ordezkari Espainiako bandera jarri dutelako irabazi dugunean.

■ **Ez da batere egoera samurra izanen zuentzat.**

Ez, baina gu, batez ere, kirolariak gara, eta oso argi daukagu Nazioarteko Federazioan egoteko eskubidea daukagula. Gainera, nafarrak izateagatik arazoak izan ditugu Euskal Autonomia Erkidegoko txapelketetan parte hartzeko. Nafarroan badira Espainiako taldearekin aritzen diren sanbokak ere, eta gure artean harre-

soslaia

Judoaren munduan oso gazte zela sartu zen Juan Azpiroz iruindarra, sei urte besterik ez zituenean, hain zuzen. Bere irakaslearen eskutik sanboa ezagutu zuen kirolari nafarrak, eta, orain, berak erakusten dizkie bere ikasle judoek borroka mota horren sekretu guztiak.

Lehiaketa ofizialetan parte hartzeko oztopo ugari izan arren, hainbat domina irabazi ditu sanboka iruindarrak nazioarteko txapelketetan. Maltan iaz egin Herri Txikien Munduko Txapelketan irabazi zuen, hain zuzen ere, bere urrezko azken domina.

Azpiroz egunero bi orduz entrenatzen da. Orain, gainera, gogor ari da lanean, laster txapelketetan parte hartuko duen taldea osatzeko lehen frogak hasiko baitira. Sanboak gero eta jarraitzaile gehiago duela azpimarratu du Azpirozek, eta, Euskal Herriko sanboek maila handia dutela. «Ez gizonezkoek bakarrik, emakumezkoek ere bai».



man ona dago. Pena da gure artean lehiatzeko aukerarik ez izatea, polita izanen litzatekeelako. Baina guk ezin dugu deus egin: entrenatzen eta ahal dugun lehiaketa guztietan parte hartzen jarraitu, besterik ez. Borondate politikorik ez dagoen bitartean, arazo hau ez da konponduko.

■ **Azkenaldian euskal selekzioen aldeko mugimendua asko zabaldu da; zer deritzozu?**

Egia da mugimendu zabala

sortu dela, baina, azken finean, kirolariok ezer gutxi egin dezakegu borondate politikorik ez badago. Euskal selekzioen artean, gainera, gu aitzindari izan gara, eta besteentzat urrats garrantzitsuak egin ditugula uste dut. Amorragarria da lehiaketa ofizialetan parte hartzerik ez izatea, baina guk lanean jarraituko dugu, gure taldea onar dezaten.

→ **Edurne Elizondo**



Nafar Kronika

Aitor Arozena

Sanzen Foru Agindu berriak

Instituzioetan: Madrilen ortziralean izandako atentatua gaitzesten ez duen EHrekin egindako itunaren ondorioz agintzen duela kontuan hartuz, Eusko Jaurlaritzarekin dugun hitzarmen oro eten eginen dugu. Egia da, ekintzez ez dela ez hitzarmen ezta harremanik ere, baina hobe da aitzinetik aurreikustea gero jasan behar izatea baino.

Irakaskuntzan: Nafarroako historia azaltzen den eskolako liburuetan, Nafarroaren nortasun berezia —Espainiaren barnean, noski— eta Autonomia-Foruaren izaera azaldu beharko dira. Beraz, historia 1978. urtetik honat izanen da. Aitzinekoa, berriz, historiaurrea.

Azpiegituretan: N-121 errepidearen arriskua salatuz egin diren manifestaldiekin bat eginen dugu. A-15 autopista ez da dohainik izanen, baina N-121 errepidea Gipuzkoara sartzan den Enderlatsan ordaintokia jarriko dugu. EAETik datozen eta Nafarroatik ateratzen diren auto SS-, BI- eta VI-matrikuladunak ordainduko dute bidetaria.

Hedabideetan: Diario de Navarra eta Diario de Noticias foru egunkarietan euzkera garbiyan orria agertzen den bezalaxe, NAFARKARIAk orri bat gaztelerez argitaratu behar du, nafar guzietz ulertzeko moduan.

Hizkuntz arloan: Oinarriak Plataformaren sinadura bilketa kanpainarekin bat eginenez, Euskararen Legea aldatuko dugu. Euskara nahi duten nafar guzietz egin ahal izanen dute bere etxean —ahal bada, gaztelarazko laburpenarekin—. Ekitaldi ofizialetan, aldiz, gaztelera erabiliko da, guzietz ulermena segurtatzeko moduan.

Gizarte arloan: Hemendik aitzin, ez dut aureskua kantatu edo Agur Jaunak dantzatzeko inolako obligaziorik izanen. Mendialdeko jubilatuei zuzentzerakoan erabilitako caixo, arrachaldeon eta esquerrik asco hitzak ere ez dira derrigorrezkoak izanen, norbaitek beraien erranahia azaltzen ez didan bitartean.

Kirol arloan: Osasuna, Anaitasuna, Beti Onak, Oberena... eta gisako kirol taldeek, Nafarroan eta Espainiako gainerako probintzia eta erkidegoetan jokatzan dutenean, beraien izenaren itzulpena adierazi beharko dute, hara nola Salud, Siempre Buenos, Los Mejores... Izen hauek behin betiko hartzea hobetsiko da.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Lizarrak:** Bihar, Koma burlatarak Gaztetxean izanen dira, 22:30etatik aurrera.
- **Iruñea:** Arcanda taldeak Arrotxapeako Bi-Garoa tabernan joko du bihar, 00:30etan.
- **Burlata:** Igandean, 18:00etan, Ibon Salaberriak kontzertua eskainiko du Danai jatetxean.
- **Burlata:** Asteartean, Black Rose tabernan, 20:30etatik aurrera, M.A.L.M. taldea ariko da.

BERTSOLARIAK

- **Lesaka:** Gaur eginen dute Bortzirietako II. Bertso Txapelketako finala. Estitxu Arozena, Erika Lagoma eta Xabier Terreros Xabier Silveira, Manolo Arozena eta Saioa Mitxelenaen kontra.

HITZALDIAK

- **Iruñea:** Gaur, 19:30etan, Txantreako Auzotegin, Eguzki talde ekologistako kideek Euskal Herria Euskal Hiria nola bilakatu den aztertuko dute, *Lurraren aldeko mugimendu bat* sortuz mintzaldi zikloaren barnean.

ERAKUSKETAK

- **Atarrabia:** Gaur gaueko bederatzia arte ikus daiteke kultur etxean Sebastian Salgadorek *Terra* argazki erakusketa.
- **Barañain:** Gaur 20:30etan akitzen da *Rwanda: eskolatugabeko Giharako haurren txokoa* erakusketa kultur etxean ikusteko aukera.
- **Iruñea:** Urtarrila bukatu arte, Nafarroa Kirol Elkarteak, 19:00etatik 21:00etara, Agustin Lojo eta Fernando Villarrealen *Teknika fotografikoa* erakusketa bitxia ikus daiteke.

- **Zangoza:** Otsailaren 12 arte ikusgai dago Vallesantoro kultur etxean Medicus Mundiren *Guarani* argazki erakusketa, asteartetik larunbatera, 19:00etatik 21:00etara.
- **Zizur Nagusia:** Igandetik otsailaren 13 arte ikus daiteke Ana Casas, Marta Rueda eta Teresa Sabateren *Interiores* erakusketa, lanegunetan 19:00etatik 21:00etara, igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.
- **Iruñea:** *Gure aitona-amonon haurtzarora* erakusketa ikus

daiteke Hezkuntza Departamentuko klaustro-gaineko galerian (Santo Domingo z/g), lanegunetan (goizetan), otsailaren 20 arte.

IKASTAROAK

- **Iruñea:** Iruñezar euskaltegiko ikas elkarteak antolatzen duen *aerobic* ikastaroan izena eman nahi duenak 948-210433 telefonora deitu behar du, otsailaren lehena baino lehen.
- **Iruñea:** Nafarroako Gazte Kontseiluak osasun-hezitzaile

izateko ikastaroa antolatu du, droga-menpekotasunen prebentzioan aritzeko. Informazio gehiago eskuratzeko eta izena emateko 948-234819 telefonora deitu.

BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Iruñezar euskaltegiko ikas elkarteak pilota txapelketa antolatu nahi du otsailarako, eskuz nahiz palaz. Bikote bakoitzak 500 pezeta ordaindu behar ditu. Izena emateko deitu 948-210433 telefonora.



Basiano Barcinarenean

Iruñeko Kutxak, Nafarroako Aurrezki Kutxak irentsita desagertu aitzin, Jesus Basianoren margolan bat eman dio Iruñeko Udalarí. Kontuan izanik Iruñeko Kutxako lehendakaria, orain arte, Iruñeko alkatea zela, ez da argi geratzen benetako oparia egon ote den. Azken batean, biak bat dira. Edo, hobeki esanda, ziren. Behintzat Basianoren margolanak Nafarroako Kutxa sortu berriaren atzaparretatik alde egitea lortu du. Jesus Basiano murchantearra (1899-1966) margoturiko lanak Iruñeko panoramika bat biitzen du, Arga ibaitik begiratuta. Margolana Yolanda Barcinaren bulegoan paratu dute, margoa oparitzeko baldintzetako batek erratan baitzuen koadroa udaletxeko lehentasunezko lekuren batean jarri behar zela. Berriz ere susmoa. Ez ote zuen Iruñeko Kutxako lehendakariak baldintza hori jarriko, margolana gustuko zuelako oso eta bere bulegoan paratu nahi zuelako?